

Terapeuta Okupazionala

GIDA

iruten



Inklusibitate erantz



| | |
|---|-----------|
| 1.- KONTRATU MOTAK..... | 6 |
| 1.1.- FINKOAK | 6 |
| 1.2.- LEP ARTEKOAK | 6 |
| 1.3.- COS..... | 6 |
| 2.- LEKUALDATZE LEHIAKETA..... | 6 |
| 3.- JARDUNA | 8 |
| 3.1.-JARDUN OSOKO KONTRATUAK..... | 8 |
| 3.2.- JARDUN ERDIKO KONTRATUAK..... | 8 |
| 3.3.- KOORDINAKETAK, KLAUSTROAK ETA BERRITZEGUNEKO BILERAK..... | 8 |
| 3.4.- INTINERANTZIAK | 9 |
| 4.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK | 10 |
| 4.1.- IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA* | 10 |
| 4.2.- NORBERA EDO SENIDEAK EZKONTZEAGATIK HARTUTAKO LIZENTZIAK..... | 11 |
| 4.3.- SENIDEEN GAIXOTASUN LARRIAGATIK EDO HERIOTZAGATIKO LIZENTZIA..... | 11 |
| 4.4.- NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK EDO NORBERAREN BETEBEHARRAK BETETZEKO LIZENTZIAK..... | 12 |
| 4.5.- OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO LIZENTZIAK..... | 12 |
| 4.6.- SINDIKATUAREN EDO LANGILERIAREN ORDEZKARI GISA JARDUTEKO LIZENTZIA..... | 12 |
| 4.7. GAIXOTASUN KRONIKOREN BAT EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEEI LAGUNTZEKO BAIMENA | 12 |
| 4.8.- IKASKETAK EDOTA PRAKTIKAK EGITEKO BAIMENA | 12 |
| 4.9.- AZTERKETETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA..... | 13 |
| 4.10.- KONTSULTA, TRATAMENDU ETA AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEKO BAIMENA.. | 13 |
| 4.11.- ZIENTZIA-, TEKNIKA-, LANBIDE-, ELKARGO-, ELKARTE-, ETA SINDIKATU-IZAERAKO GERTAKIZUN KOLEKTIBOETARA JOATEKO BAIMENA | 13 |
| 4.12.- KARGU HAUTETSIARI DAGOZKION ZEREGINAK EGITEKO BAIMENA | 13 |

Terapeuta Okupazionala – GIDA

| | |
|---|-----------|
| 4.13.- NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA | 14 |
| 5.- ESZEDENTZIA ETA MURRIZKETAK | 15 |
| 5.1.- BORONDATEZKOAK..... | 15 |
| 5.1.1.- SEME-ALABAK ZAINTZA 3 URTERA ARTEKOA | 15 |
| 5.1.2.- ODOL-AHAIDETASUNEN EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNEN BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTZEKO | 15 |
| 5.1.3.- BORONDATEZKOA | 16 |
| 5.1.4.- BEREZIA | 16 |
| 5.2.- NAHITAEZKOAK..... | 16 |
| 5.3.- URTE SABATIKOA | 16 |
| 5.4.- JARDUN MURRIZKETAK..... | 16 |
| 5.4.1.- ADINGABEKOAK ZAINTZEKO MURRIZKETA | 16 |
| 5.4.2.- ODOL-AHAIDETASUNEN EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNEN BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTZEKO MURRIZKETA | 17 |
| 5.4.3.- BORONDATEZKOAK | 17 |
| 6.- ORDAINSARIAK..... | 18 |
| 6.1.- LANSARIAK..... | 18 |
| 6.2.- HIRURTEKOAK..... | 18 |
| 6.3.- AURRERAKINAK | 18 |
| 6.4.- PFEZ 2021ean | 18 |
| 7.- GIZARTE FUNTSA..... | 20 |
| 7.1.- ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA..... | 20 |
| 8.-FORMAZIO FONDOA | 22 |
| 9.- IRALE ETA PREST GARA | 23 |

| | |
|--|-----------|
| 9.1.- IRALE..... | 23 |
| 9.2.- PREST GARA..... | 23 |
| 10.- FUNTZIOAK | 24 |
| 11.- ORDEZKAPENAK | 26 |
| 11.1.- ZERRENDEN IREKIERAN BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK..... | 26 |
| 11.2.- ZERRENDAKO BAREMAZIO IRIZPIDEAK | 26 |
| 11.3.- FUNTZIONAMENDUA ETA SALBUESPENAK | 27 |
| 11.3.1.- ORDEZKAPENETARAKO ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA | 27 |
| 11.3.2.- FUNTZIONAMENDU OROKORRAREKIKO SALBUESPENAK | 27 |
| 11.3.3.- ORDEZKAPENEI UKO EGITEKO ARRAZOTIAK ZERRENDETATIK ERORI GABE | 28 |
| 11.3.4.-ZERRENDATIK BAZTERTZEKO ARRAZOTIAK | 30 |
| 11.3.5.- ZERRENDEN KUDEAKETA. DEIAK | 31 |
| 11.3.6 .- ZERRENDETATIK KANPORATZEAREN ONDORIOAK | 31 |
| 11.3.7.- ZERRENDAKO HURRENKERA ETA POSIZIOAREN XEHETASUNAK..... | 32 |
| 11.4.- BIRBAREMAZIOAK | 32 |
| 11.5.- BAREMAZIO IRIZPIDEAK | 33 |
| 12.- ESLEIPENAK | 34 |
| 12.1.- FINKOAK ETA LEP ARTEKO KONTRATUAK (BAKANTEAK)..... | 34 |
| 12.2.- ORDEZKOAK | 34 |
| 12.2.1 PROZEDURA..... | 35 |
| 13.- HAURDUNALDIA, GURASOTASUNA ETA EDOSKITZEA | 39 |
| 13.1.- LANEKO ARRISKUAK HAURDUNALDIAN | 39 |
| 13.2.- AMA BIOLOGIKOAREN JAIOTZAGATIKO BAIMENA ETA AMA BIOLOGIKOA EZ DEN BESTE GURASOAREN SEME-ALABAREN JAIOTZA BAIMENA | 39 |
| 13.3.- EDOSKITZEA | 41 |

Terapeuta Okupazionala – GIDA

| | |
|--|----|
| 13.4.- ADOPZIO, ADOPZIO AURREKO ZAINZA EDO HARRERA ALDI BATERAKO ZEIN IRAUNKORGATIKO BAIMENA | 41 |
| 14.- LAN ISTRIPUAK/ BAJA ARRUNTAK..... | 42 |
| 15.- LANGABEZIA | 43 |
| 16.- OHIKO GALDERAK | 44 |
| 17.LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA | 45 |
| 18. URTEKO KRONOGRAMA | 46 |
| 19. HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZETAKO TELEFONO ETA EMAILAK | 47 |

1.- KONTRATU MOTAK

1.1.- FINKOAK

Berritzeguneari atxikitutako plazak dira. Berritzegunez aldatu nahi izanez gero lekualdatze lehiaketan parte hartu behar da (apirila aldera eskaera egiten da, maiatza aldera behin-behineko zerrenda ateratzen da, eta ekaina aldera erreklamazioak eta behin betiko zerrendak agertzen dira).

1.2.- LEP ARTEKOAK

Mugagabe ez finkoak (LEP arteko bakanteak): OPEa izan arteko plazak dira edo finko batek kodea eta dotazioa hartu arte. Kasu horretan, desplazatua izan den langileak berritzegune bereko plaza libre bat aukeratu beharko luke, plaza hauek berritzeguneari atxikituta daudelako.

1.3.- COS

(Contrato Obra o Servicio delako kontratuak)

Irailaren 1etik abuztuaren 31ra arteko plazak dira. Irailean eta urrian sortutako lanpostuak ere (behar berriak) abuztuak 31ra artekoak izango dira.

Badaude postu batzuk lurraldeko ordezkarietara atxikituta. Lanpostu hauek lurraldeko berritzeguneetan libre geratzen diren edozein plaza aukera ditzakete. Esleipen prozesua, berritzegunetan atxikituta dauden fisioterapeuten ondoren egiten da. Plaza hauek hartzen dituzten fisioek plaza aukeratzeko berritzegunean atxikituta dauden fisioen atzean aukeratuko

2.- LEKUALDATZE LEHIAKETA

Hezkuntza Bereziko pertsonal finkoek bakarrik hartzen dute parte lehiaketan. Lekualdatzea berritzegunez aldatzeko prozesua da eta urtero egiten da.

Eskaera apirilean egiten da, maiatzean behin-behineko zerrendak ateratzen dira eta ekainean erreklamazioak egin daitezke. Hauek ebatzi eta gero behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Tramiteak irakasle.eus bitartez egiten dira. (Ikusi 18. puntuan urteko kronograma)

Lanpostu bera hartzeko langile bat baino gehiago aurkezten bada, Batzorde Parekideak baremo bat egingo du, honako irizpide hauek kontuan izanik:

- Norberaren barrutian soberazkoa den langilea.
- Enpresako pertsonal finko gisako antzintasuna.
- T. O. zerbitzua harena ez den beste barruti batean ematea, zerbitzu emate hori soberakoa izateak eragiten badu.
- LEP-ean sartzeko nota.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

- Adinez nagusia.

Lanpostu berria lanean hasteko epea esleipena egin ondorengo ikasturtearen hasiera izango da.

Prozedura horren bitartez lanpostua lortu duten langileek gutxienez bi urte egon beharko dute bertan, beste lekualdatzeren batean parte hartu ahal izateko.

Urtero, ikasturte bukaeran, berritzeguneko barrutian lanean diharduten Hezkuntza Laguntzako Espezialistek bete beharko dituzten ikastetxea/k banatzeari ekingo zaio.

3.- JARDUNA

3.1.-JARDUN OSOKO KONTRATUAK

- Erreferentzia zentroko egutegi bera izango da. Ikastetxe bitan arituz gero, lan-ordu gehien egiten den ikastetxekoa beteko da.
- Irakasleen lanaldiaren arabera jarduna egingo dute. Jardun osoan 23 irakastordu (arreta zuzena) eta koordinazio eta bileretareko 7 ordu.
- Urteko jardunaldia gehienez 1.462 ordukoa izango da.

Ikastetxe bitan arituz gero, batetik besterako joan-etorriak lan-orduak balira bezala kontatuko dira. Ikastetxe bien arteko bidea 2 km baino luzeagoa izatekotan, norberaren garraioa edo garraio publikoaren gastuak ordainduko dira.

3.2.- JARDUN ERDIKO KONTRATUAK

- Erreferentzia zentroko egutegi bera izango da.
- Urteko jardunaldia gehienez 731 ordukoa izango da.
- Berezitasunen arabera, fisioterapeutak irakasleen antzeko dedikazioa izango dute.
- Ikastetxe bitan arituz gero, batetik besterako joan-etorriak lan-orduak balira bezala kontatuko dira. Ikastetxe bien arteko bidea 2 km baino luzeagoa izatekotan, norberaren garraioa edo garraio publikoaren gastuak ordainduko dira.

3.3.- KOORDINAKETAK, KLAUSTROAK ETA BERRITZEGUNEKO BILERAK.

Ostiraletako azken bi saioak Berritzegunetako HPB aholkularitzarekin eta gainontzeko fisioterapeutekin koordinatzeko erabili ahal izango dira, lurralde mailako koordinazio-planak ezarritakoaren arabera.

Beste profesionalekin koordinazioa (HPBko aholkulariekin, irakasleekin, okupazio-terapeutekin, hezkuntza laguntzako espezialistekin, sendagile birgaitzaileekin, ortopedekin...). jarduera-planean zehaztutakoaren arabera egingo da.

HPB aholkularitzekin izan beharreko koordinazioa Berritzegunean egingo da, bakoitzak horretarako ezartzen dituen datetan.

Irailaren lehen hamabostaldia eta ekaineko bigarren hamabostaldia koordinazioetarako, urteko planak egiteko, ikasleen lan egiteko planak gauzatzeko eta txosten eta memoriak egiteko erabiliko dira.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

3.4.- INTINERANTZIAK

Ikastetxe bitan arituz gero, batetik besterako joan-etorriak lan-orduak balira bezala kontatuko dira. Ikastetxe bien arteko bidea 2 km baino luzeagoa izatekotan, norberaren garraioa edo garraio publikoaren gastuak ordainduko dira.

4.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

1. **maila:** Seme/Alaba - Gurasoak-Erraina-Suhia - Amaginarreba/Aitaginarreba
2. **maila:** Biloba - Neba/Arreba/Anaia/Ahizpa - Aitona/Amona - Koinata/Koinatu
3. **maila:** Iloba - Izeba/Osaba - Birraitona/Birramona
4. **maila:** Lehengusina/Lehengusua

4.1.- IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA*

Irakasle zerrendetan lan egiteko, Heziketa Bereziko lanpostu bati uko egiteko aukera dago.

Horretarako hiru bide erabili daitezke kasuan kasu:

- **Irakaskuntza funtzioetako aldi baterako uko egitea:**

Bakante edo plaza hutsaren kontratua eta ordezkapen kontratua dutenek gutxienez 3 urteko lan-zerbitzua metatuta izan behar dute, zerrendetatik kanporatua ez izateko. Hala ere, indarrean daukan lan-kontratua galduko da.

Prozedura:

Irakasle-lanpostua esleitu eta gero email bat idatzi behar da sindikatuekiko harremanetarako departamentura, Lakuan: huijs016@euskadi.eus

- **Bateraezintasun eszedentzia:**

Finkoek irakasle zerrendetan lan egiteko aukera daukate. Baimen honek ere administrazioko beste lanpostuetara lan egitera joateko balio du.

Prozedura:

Bateraezintasun eskaera egin behar da, sindikatuekiko harremanetarako departamentuan, Lakuan huijs016@euskadi.eus

Heziketa Bereziko lanpostura bueltatzeko, berriro email bat bidali beharko da aurreko emailera. Hau egiteko hilabeteko epea egongo da eta nahi bezain beste aldiz egiteko aukera egongo da.

Indarrean dagoen lanpostua ez da gordetzen.

Lanerako buelta ez da ikasturtean zehar izango. Hurrengo ikasturteko irailera arte itxaron behako da lanpostura itzultzeko.

- **Eszedentzia berezia**

Enplegua banatzeko neurrien barruan eszedentzia hartzeko aukera dago. Enpresan gutxienez bi urteko antzintasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen berritzegune berean lanpostua gordeko zaio, gutxienez sei hilabetekoa, eta gehienez urtebetekoa, izango da. Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bi urte igaro arte.

*Eskaera egiteko eredia txostenaren bukaeran daukazue

4.2.- NORBERA EDO SENIDEAK EZKONTZEAGATIK HARTUTAKO LIZENTZIAK

Langileak 20 egutegi-eguneko lizentzia izango du ezkontzagatik. Lizentzia ezkontza ospatu baino lehen edo ospatu ondoren hartu ahal izango da, baina, edonola ere, ezkontzaren eguna epealdiaren barruan geratuko da. Lizentzia hori oporraldiari gehitu ahal zaio aurretik zein atzetik; horrela eginez gero, dagokion lurralde-ordezkaritzan adierazi behar da, gutxienez 15 egun lehenago. Era berean, bikoteko bizikidetza egonkorrean hasten den langileak lizentzia honetaz baliatzeko eskubidea izango du. Ezkontza edo bizikidetza egonkorra dela eta, ezin izango de beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte eta inolaz ere ez bikoteko kideak berberak direnean.

Ezkontza langilearen gurasoena, aita-amaginarrebarena, neba-arrebena, ahizpa-anaiena, suhi-errainena, seme-alabena, ilobena edo aitona-amonena denean, langileak ezkontza eguna izango du libre, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150km baino urrutiago egiten bada, hiru egutegi-egun emango dira libre.

4.3.- SENIDEEN GAIXOTASUN LARRIAGATIK EDO HERIOTZAGATIKO LIZENTZIA

Bigarren mailara arteko senideen heriotzagatik, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen heriotzagatik, 3 lanegun har ditzake langileak; eta ezkontzaren, bikotekidearen edo seme-alabaren egiaztaturiko gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik, 5 lanegun. Bi lanegun izango ditu odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larriagatik, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen gaixotasun larriagatik.

Aipaturiko lizentzia-aldiei 2 egutegi-egun gehiago gehituko zaizkie, gertakizunak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen badira.

Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatuko azkenburuko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epea egongo, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatikoz luzapena.

4.4.- NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK EDO NORBERAREN BETEBEHARRAK BETETZEKO LIZENTZIAK

Ezinbestez bete behar diren betebehar publikoak edo norberaren betebeharrak egiteko, behar beste denbora izango dute langileek, baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago. Kasuak hurrengoak dira:

- Epaitegiaren, komisariaren, gobernu zibilen edo militarren zitazioak, ikuskapen militarrek edo arma-ikuskapenak, NAN, pasaportea, egiaztagiriak eta erregistro-izapideak, erakunde ofizialetan.
- Elbarri fisikoak edo psikikoak diren odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei izapide zehatzak egiten laguntzea.
- Gida-baimena eskuratzeko edo berritzeko azterketa.
- Notarioen errekerimenduak eta izapideak.
- Zinegotzi, diputatu, ahaldun edo batzarkide gisako hautetsi legez, gobernu-organoen eta berauen menpeko batzordeen bileretara joateko.

4.5.- OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO LIZENTZIAK

Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. Errolda-ziurtagiriaz egiaztatu beharko du hori. Baimena errolda-aldaketa eta hamabost egun lehenago edo geroago hartu behar da.

4.6.- SINDIKATUAREN EDO LANGILERIAREN ORDEZKARI GISA JARDUTEKO LIZENTZIA

Sindikatuan edo langileriaren ordezkari-lanak egiten dituzten langileek horri dagokion lizentzia hartzeko eskubidea izango dute.

4.7. GAIXOTASUN KRONIKOREN BAT EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEEI LAGUNTZEKO BAIMENA

Langileak mugitzeko arazoak dituen edo gaitz larri jarraituen bat duen odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat zaindu behar badu, langileak ordaindutako berrogeita hamar ordu arteko baimena izango du ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu-kreditu hori erabiltzeko egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehienez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtetearekin batera erabili beharko dira.

4.8.- IKASKETAK EDO TA PRAKTIKAK EGITEKO BAIMENA

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak baimen hori eman dezake, behar adina luzatuko da, ordainsariei borondatez uko eginda.

4.9.- AZTERKETETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA

Langileek zentro ofizialetako edo homologatuetako azterketetara joateko baimen-eskubidea izango dute. Egutegiko egun bat emango zaie azterketa bakoitzeko —bai deialdi arruntetan, bai ohiz kanpoko deialdietan—, aldez aurretik egiaztageria aurkezten badute. Baimena bi egutegi egunez luzatuko da, azterketa-lekua azterketa egiten duenaren ohiko egoitzatik 150 km baino urrunago baldin badago. Baimen hau ordaindu egingo da.

4.10.- KONTSULTA, TRATAMENDU ETA AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEKO BAIMENA

Langileek eskubidea dute lanaldiaren barruan kontsulta, tratamendu eta medikuaren azterketa egitera joateko, arrazoiak behar bezala egiaztatzen badituzte, eta osasun-zentro horietan bestelako kontsulta-ordurik ez badute langilea lanorduetatik at joateko.

Haurdunaldian dagoen emakumeak erditzea prestatzeko teknikak ikastera eta jairo aurreko azterketak egitera joateko behar beste denborarako baimena izango du, eta ordaindu egingo zaio. Asteaz lau ordu izango dira, goitik jota. Horretarako, egiaztatu egin behar da jarduerak lanaldiaren barruan egin behar direla eta benetan joan behar dela.

4.11.- ZIENTZIA-, TEKNIKA-, LANBIDE-, ELKARGO-, ELKARTE-, ETA SINDIKATU-IZAERAKO GERTAKIZUN KOLEKTIBOETARA JOATEKO BAIMENA

Biltzar, ikastaldi, ikastaro, mintegi, symposium, topaketa, lehiaketa, elkarrizketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte-, eta sindikatu-izaerako bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko baimena eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharrianak kontuan izanik eta dagokion lurralde-ordezkaritzak baimendu ondoren.

Langileak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egunera arte ordainduko da. Muga horretatik gorako soberakina, berriz, ez da ordainduko, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez dietarik, ez bidai-gasturik, ez egonaldi- edo matrikula-gasturik, ez beste ezer, den-denak langilearen kontura izango baitira.

4.12.- KARGU HAUTETSIARI DAGOZKION ZEREGINAK EGITEKO BAIMENA

Instituzioetako kargu hautetsiak diren langileek baimena izango dute kargu horiei dagozkien zereginak betetzeko, behar adina denbora eduki ere, baldin eta orduen kopuru osoak urteko lanaldiaren %10 gainditzen ez badu.

Egoera horretan dauden langileek lanaldi arrunteko orduak murrizteko baimena har dezakete. Murrizketa hori lanegunaren bostenekoa, herenekoa edo erdikoa izango da, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du bere baitan.

4.13.- NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA

Norberaren eginkizunetarako baimena, oso arrazoi bereziagatik ez bada, ezin izango da eskatu jardunean hasi edo lanera itzuli eta urtebete igaro arte.

Norberaren eginkizunetarako baimen-aldietan ez da ezer ordainduko; gainera, baimen-aldia oporrei kenduko zaie hein berean. Iraupena, guztira, ezin izango da hiru hilabetekoa baino luzeagoa izan, bi urtetik behin.

Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen denean, urtean ondoz ondoko lau hilabete eman ahalko dira gehienez.

Hala zehazten den kasuetan, ikasketa ofizialak egiteak lanaldia murrizteko eskubidea ekar dezake; murrizketa hori lanaldiaren heren batekoa izango da gehienez eta lansariaren atal guztien beherapen proportzionala ekarriko du bere baitan.

Baimena garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada, eta beti ere gobernuz kanpoko erakundeen babespean bada, baimenaren iraupena, metatuta hartuta, ezin izango da urtebetetik gorakoa izan bost urtetik behin, eta gutxienerako aldia hiru hilabetekoa izango da.

Administrazio eta erakunde publikoetako kidegoetara eta eskaletara sartzeko deialdietan baimena emango da ezarritako hautatze probetako ariketak egiteko. Baimen hori probetan parte hartzeko behar adina denborarako emango da.

Baimena emango da zigor askatasun-gabetzailearen bat betetzen ari den odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bati bisita egiteko, behar beste denborarako eman ere, baldin eta bisitak lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

Baimena, dena delako modukoa izanik ere, laneko beharren arabera emango da. Ebazpena ezezkoa bada, horren arrazoiak eman beharko dira.

Baimen hori hartzeko eskubidea daukan aldi baterako langileak gutxienez urtebeteko zerbitzaldi pilatua izan beharko du administrazioan, eta indarrean dagoen ikasturtean gutxienez 6 hilabete izan beharko ditu pilatuta. Horretarako, ikasturte baterako egiten den kontratua izanez gero, bigarren baldintza betetzen dela ulertuko da.

Lizentzia guztiak eskatzeko eskabide orriak www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila gunean daude eskuragarri:

Lan-arloak ➡ Langileak ➡ Kudeaketa-irakasle ez diren langileak ➡ Lizentziak eta baimenak.
Hezkuntza Berezia

Terapeuta Okupazionala – GIDA

5.- ESZEDENTZIA ETA MURRIZKETAK

5.1.- BORONDATEZKOAK

5.1.1.- SEME-ALABAK ZAINTEA 3 URTERA ARTEKOA

- Edozein unetan eskatu ahalko da, adingabeak 3 urte bete arte.
- Nahi beste aldiz eten eta eskatu ahalko da.
- Egoera horretan igarotzen den denbora antzinasunerako zein jubilaziorako konputagarria da.
- Guraso biak lanean daudenean, bietako bat bakarrik baliatu ahal izango da eskubide horretaz.
- Egoera horretan egoten den bitartean ezin da ordaindutako kontraturik izan.

Ordezkoen kasuan:

- Edozein unetan eskatu ahalko da adingabeak 3 urte bete arte edozein unetan eskatu ahalko da eskaintako ordezkapenari uko egiteko aukera. Aldi baterako lan-etetearen egoeran sartu direnek egoera horretan egongo ez bailiren deituak izateko eskubidea izaten jarraituko dute eta ordezkapenak egiteko eskaintzen zaien aldia emandako zerbitzu-denboratzat konputatuko zaie.
- Egoera horretan ematen den denbora ez da kontuan hartzen antzinasunerako ezta Gizarte Segurantzarako ere.
- Denbora hau kontuan hartuko da barematzeko.
- Adingabeak 3 urte betetzen dituenean edo lanera itzultzea erabakitzen duenean, gutxienez 20 egun lehenago, eta idatziz, adierazi beharko du onuradunak lan egiteko prest dagoela.
- Gurasoetako batek bakarrik eskatu ahalko du.
- Eskabide-orria bete behar da eta Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu.

5.1.2.- ODOL-AHAIDETASUNENK O DO EZKONTZA-AHAIDETASUNENK O BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTEK O

Langileek gehienez urte bateko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordeta izateko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinasunaren ondorioetarako. Era berean, prestakuntza ikastaroetan parte-hartzeko eskubidea izango du.

5.1.3.- BORONDATEZKOA

Urtebeteko antzinasuna bete duten langileek borondatezko eszedentzia eska dezakete, idatziz; eta aurreko lau urtetan eszedentziarik hartu ez badute. Gutxienez urtebetekoa, eta gehienez bost urteko eszedentzia emango zaie.

5.1.4.- BEREZIA

Enplegua banatzeko neurrien barruan eszedentzia hartzeko aukera dago. Enpresan gutxienez bi urteko antzinasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen berritzegune berean lanpostua gordeko zaio. Gutxienez sei hilabeteko eta gehienez urtebetekoa izango da.

Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bi urte igaro arte.

5.2.- NAHITAEZKOAK

Nahitaezko eszedentziak lanpostua gordetzeko eta antzinasuna zenbatzeko eskubidea emango du. Honako kasuetan emango da, Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari idatziz horren berri eman ondoren:

- Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langilea lanera joan ezin denean.
- Langileak herrialdean edota lurralde-eremu handiago batean eginkizun sindikalak bete behar baditu, ordezkari kargua duen bitartean.
- Langileak askatasuna galdu duenean —prebentziozko atxilotzea eta behin behineko espetxeratzea barne hartuta—, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.

5.3.- URTE SABATIKOA

Baimenaren iraupenari dagokionez, urte sabatikoa bostgarren urtean har daitekeen arren, partzialki ordaindutako baimenak bost urte irauten ditu. Bost urte hauek, irakaskuntzaren arloko antolakuntza eta plangintzarekin bat etorritz, bost ikasturte oso dira.

Partzialki ordaindutako baimena jaso ahal izateko lau urtez jardun beharko da lanaldi osoan eta ordainsariaren zati bat baino ez da jasoko (%84a) eta bostgarren urtean baimen urtea izango da soldataren %84arekin ere.

5.4.- JARDUN MURRIZKETAK

5.4.1.- ADINGABEKOAK ZAINTEZKO MURRIZKETA

Ardurapean 12 urtetik beherako adingabekoren bat izatean, lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal da (nahi besteetan eskatu daiteke). Murrizketa hori lanegunaren herenekoa izango da gutxienez. edo erdikoa, gehienez, beti ere jardunaldiari begira. Ordutegia, murrizketa eskatu

Terapeuta Okupazionala – GIDA

duenak erabakitzen du, baina beti jarraia izan behar da. Etengabeko jardunaldia dagoenean jardunaldiaren murrizketa ere proportzionala izan beharko da. Lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du horrek.

Bularra edo biberioia emateko ordubeteko etenaldia egiteko eskubidearekin bateragarria izango da.

5.4.2.- ODOL-AHAIDETASUNeko EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNeko BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTEZKO MURRIZKETA

Langileek lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko. Murrizketa hau senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eska daiteke.

Murrizketa hori lanegunaren herenekoa izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, beti ere jardunaldiari begira.

5.4.3.- BORONDATEZKOAK

Enplegua banatzeko neurrien barruan aukera dago lanaldia borondatez murrizteko. Langileak lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskatu ahal du, lansariak ere hein berean murriztuko zaizkio, hirurtekoak barne hartuta.

Lanaldia murrizten bada, egoera hori eta beste edozein lan jarduera burutzea, bai ordainduta zein ordaindu gabe, bateraezinak dira, gutxitu den ordutegiaren barruan bada.

Eskaera urtebeterako izango da gutxienez, eta, baimena eten ondoren, hiru urte igaro beharko dira berriz ere eskatu ahal izateko.

6.- ORDAINSARIAK

6.1.- LANSARIAK

2020ko lan sariak honakoak dira :

| Soldata (urtean 12) | Aparteko soldata (urtean 2) | Soldata, guztira | Antzintasuna | |
|------------------------|--------------------------------|------------------|--------------|----------|
| | | | Hilean | Urtean |
| 2.494,62 € | 2.494,62 € | 34.924,66 € | 43,14 € | 603,96 € |

6.2.- HIRURTEKOAK

Lanean 3 urte (1.080 egun) osatu ondoren ordainduko da hirurteko antzintasuna. Langilea enpresan sartzen den lehenengo eguna izango da antzintasuna zenbatzeko hartuko den hasierako eguna, eta antzintasunerako kontuan hartzekoak ez diren epealdiak hortik kenduko dira.

Lehenengo hirurtekoa kobratu ahal izateko, idatziz eskatu behar da, ondorengoak automatikoki kobratzen dira baina komenigarria da adi ibiltzea. Erreklamatzeko urtebeteko epea dago.

6.3.- AURRERAKINAK

Jardunean dauden langileek, hileko soldata garbiaren %100erainoko aurrerakinak, interesik gabe, jasotzeko eskubidea izango dute, kontratu-harremana hilaren azkena baino lehenago bukatzen ez bada. Aurrerakin hori eskatu den hileko soldatan eman beharko da.

6.4.- PFEZ 2021ean

PFEZ kenketa aldatu nahi izanez gero, lurralde ordezkarietzeko nominetako arloarekin kontaktuan jarri behar da. Horretarako, egin nahi den aldaketa zehazten duen email bat bidali beharko da helbide hauetara:

- **Araba:** arabanomina@euskadi.eus
- **Gipuzkoa:** nominagipuzkoa@euskadi.eus
- **Bizkaia:** bizkaianomina@euskadi.eus

Laneko atxikipenen taula

| Urteko etekinaren zenbatekoa (eurotan) | | Ondorengo kopurua | | | | | | |
|--|----------------|-------------------|----|----|----|----|----|---------|
| Honetatik | Honetara | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | Gehiago |
| 0,00 | 14.000,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14.000,01 | 14.690,00 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14.690,01 | 15.420,00 | 6 | 4 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 15.420,01 | 16.310,00 | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 16.310,01 | 17.540,00 | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 17.540,01 | 18.970,00 | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 18.970,01 | 20.500,00 | 10 | 8 | 7 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| 20.500,01 | 21.840,00 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| 21.840,01 | 23.340,00 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| 23.340,01 | 25.080,00 | 13 | 12 | 10 | 8 | 4 | 0 | 0 |
| 25.080,01 | 27.250,00 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| 27.250,01 | 29.790,00 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| 29.790,01 | 32.880,00 | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| 32.880,01 | 37.070,00 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| 37.070,01 | 40.210,00 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 3 |
| 40.210,01 | 43.320,00 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| 43.320,01 | 46.760,00 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| 46.760,01 | 50.350,00 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| 50.350,01 | 54.520,00 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| 54.520,01 | 57.900,00 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| 57.900,01 | 61.740,00 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| 61.740,01 | 66.140,00 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| 66.140,01 | 71.180,00 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| 71.180,01 | 76.720,00 | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| 76.720,01 | 81.370,00 | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |
| 81.370,01 | 86.760,00 | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |
| 86.760,01 | 92.930,00 | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| 92.930,01 | 100.050,00 | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| 100.050,01 | 107.900,00 | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| 107.900,01 | 116.860,00 | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| 116.860,01 | 127.460,00 | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| 127.460,01 | 139.130,00 | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| 139.130,01 | 152.870,00 | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| 152.870,01 | 168.970,00 | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| 168.970,01 | 188.840,00 | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| 188.840,01 | 209.480,00 | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| 209.480,01 | hortik aurrera | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

Langile aktibo desgaituentzako gutxipenen taula orokorra

| Urteko etekinaren zenbatekoa | | Minusbalio-gradua | |
|------------------------------|-------------|-------------------|-----------------------------|
| Honetatik | Honetara | 4. a) atala | 4. b) atala eta 4. c) atala |
| 0,01 | 23.340,00 | 9 | 12 |
| 23.340,01 | 29.790,00 | 7 | 12 |
| 29.790,01 | 43.320,00 | 6 | 10 |
| 43.320,01 | 50.350,00 | 5 | 10 |
| 50.350,01 | 71.180,00 | 4 | 8 |
| 71.180,01 | 107.900,00 | 3 | 6 |
| 107.900,01 | 168.970,00 | 2 | 5 |
| 168.970,01 | hortik gora | 1 | 3 |

7.- GIZARTE FUNTSA

Gizarte funtsa; urtero 20.000 euro banatuko dira, eta hurrengo kontzeptuengatik eskatu daitezke:

- Laguntza protesikoak, ikusmena: kristalak berritzea eta ikusmena zuzentzeko lentillak (mantentze likidoak ez dira sartzen).
- Laguntza protesikoa, entzumena: audifonoak.
- Laguntza protesikoak, ortopedia: plantillak, gerrikoak eta konprimitze-galtzerdiak.
- Laguntza odontologikoak: zorroak edo endodontziak.
- Tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, osasun sistema publikoan barneratuak ez daudenak.
- Tratamenduentzako laguntzak: tratamendu psikologikoak, psikiatrikoak eta foniatriakoak
- Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduentzako laguntza.

Eskatzaile bakoitzak jasoko du gastuen zenbateko osoa, betiere batuketa hori pertsona bakoitzeko 100 € baino txikiagoa ez bada, eta gehienez 1000€ jasoko dira. Langile batek Gizarte Funtساتik hainbat deialdietan jaso dituen kopuruak batuz 5000€-ra heltzen denean, ezin izango du parte hartu hurrengo bi deialdietan.

Urte bateko eskaera guztiak batuta, 20.000€-ko aurrekontua gainditzen bada, laguntzak proportzionalki banatuko dira.

Laguntza jasotzeko eskubidea langile finkoek, bakantedunek eta aldi baterakoek (gutxienez urte naturalean 75 egun lan eginak izan beharko dituzte) izango dute.

7.1.- ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

1. Interesdunek eredu ofizialaren araberako eskabidea aurkeztu behar dute behar bezala beteta.
2. Laguntza modalitate bakoitzean eskatzen den dokumentazio espezifikokoaren jatorrizko agiriak aurkeztu behar dira.

Dokumentazioa:

- Laguntza protesikoa, ikusmena: sendagile eta/edo optikariaren egiaztagiria, pertsonaren patologia, dioptrien kopurua eta abar adierazten dituenak.
- Laguntza protesikoa, entzumena edo ortopedia; tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak; tratamenduetarako laguntza, fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduetarako laguntza: Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak alde aurretik egindako aldeko txostena. Zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetan azaltzen den protesia eskuratzearen beharra.
- Laguntza odontologikoak: ez da eskatuko ez dentistaren ez Hezkuntza Saileko Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak alde aurretik egindako aldeko txostenik.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

Otsaila-martxoan irekitzen da deialdia eskaera egiteko.

Eskabide orria eta dokumentazioa lurralde ordezkarietzan aurkeztu beharko da.

Gizarte funtsa eskatzeko eskabide-orriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila web helbidean daude eskuragarri:

Lan-arloak → Langileak → Kudeaketa-irakasle ez diren langileak → Giza eta prestakuntza fondoak

8.-FORMAZIO FONDOA

Eskaera otsaila-martxora aldera izaten da, eta Heziketa Bereziarekin zerikusia duten egindako ikastaroak ordaintzeko diru laguntzak dira.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide orria.
- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagiri/ordainagiria, non hurrengo datuak agertzen diren: ikaslearen izena, ikastaroaren izenburua, iraupena eta prezioa, beti ere urteari dagokiolarik, halaber ikastaroari dagokion urteko banketxeko abonu-agiria. Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dira.

Eskabide orria eta dokumentazioa lurralde ordezkarietzan aurkeztu beharko da.

Formazio funtsa eskatzeko eskabide orriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/hezkuntza-saila gunean daude eskuragarri:

Lan-arloak → Langileak → Kudeaketa-irakasle ez diren langileak → Giza eta prestakuntza fondoak

Terapeuta Okupazionala – GIDA

9.- IRALE ETA PREST GARA

9.1.- IRALE

Hezkuntza Bereziko hezitzaileek parte hartu ahal izango dute Hezkuntza Sailaren IRALE programetan.

Langile finkoek eta ikasturte osorako kontratua duten aldi baterako langileek parte hartu ahal dute.

Prestakuntza-eskaintza, modalitateak, parte hartzeko baldintzak eta esandako programetako parte-hartzaileen kupoak ohiko prozeduraren arabera ezarriko dira. Ikastaro-eskabideei, onartze-irizpideei eta jarraipenari dagokienez, IRALEko funtzionamendu arauak aplikatuko dira, dagokion informazio liburuxkan adierazitakoarekin bat eginik.

Eskaera urtarrila-apirila bitartean izaten da.

9.2.- PREST GARA

Hezkuntza Bereziko hezitzaileek parte hartu ahal izango dute Hezkuntza Sailaren Prest-Gara programetan.

Langile finkoek eta ikasturte osorako kontratua duten aldi baterako langileek parte hartu ahalko dute.

Eskaera maiatza aldera izaten da.

10.- FUNTZIOAK

Okupazio terapeutek ondorengo eginkizun hauek betetzen dituzte:

- 1.- TMrekin lankidetzan aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa ebaluatzerakoan, eta honako hauek baloratzea: autonomia funtzionala, curriculumera sartzeko behar dituzten laguntza teknikoak eta ikastetxean sartzeko ikasleek dituzten arkitektura oztopoak.
- 2.- Bere lanarekin lotutako gaietan, curriculuma nola egokitu eta curriculumera sartzeko zein egokitzapen egin jakiteko aholkua ematea.
- 3.- Alderdi hauek jorratzera bideratutako programan parte hartzea: sentimen, zentzumen eta pertzepzioak, mugimendu funtzionala erraztea, garapen psikikoa eta mugimenduarena eta eguneroko bizitzako ekintzetan autonomia ahalik eta handiena indartzea.
- 4.- 3. puntuan aipatutako gaitasunak ahalik eta gehien garatzera begira dagoen programa gauzatzen parte hartzea, baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek behar dituzten laguntza teknikoen erabilera baloratzea, entrenatzea eta jarraitzea ere.
- 5.- Irakasle, TM, fisioterapeuta, logopeda, hezkuntza-laguntzaile, errehabilitazio mediku, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretan edota hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten profesional guztiekin koordinazioan jardutea, hasierako balorazioa egin, hezkuntza-erantzuna antolatu eta behar diren jarraipena eta ebaluazioak gauzatzeko.
- 6.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten familiei eta gainontzeko profesionalei aholku ematea eta orientatzea, beren lanarekin lotutako gaiei buruz.
- 7.- Urteko plangintza eta memoria prestatzen, bai eta beren lanaren xede izan diren ikasleei dagozkien txostenak ere.
- 8.- Beren jarduerarekin zerikusia duten prestakuntza- jardueretan parte hartzea.
- 9.- Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea ikasgelako metodologia –eta antolaketa– lanetan, bai eta banakako arretan ere, artatutako ikasleen parte-hartzea eta sarbidea errazteko.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

10.- Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea proposamen didaktikoak ikasle bakoitzaren beharrietara doitzeko orduan, artatzen dituen ikasleen okupazio-jardunbidea errazteko xedez.

Eginkizun horiek modu koordinatuan garatuko dira artatutako ikasleekin harremana duten gainerako profesionalekin.

11.- ORDEZKAPENAK

Aurreikusiz gero, zerrendetan dauden izangaiekin ordezkapenetarako langile-beharrak ezin izango direla bete, edota L.E.P. baten aurretik, zerrenden irekiera egunkari ezberdinetan iragarriko da. Igandeetan argitaratzen dira iragarki hauek. Hezkuntzako webgunean ere argitaratzen dira.

LABen webguneko heziketa bereziko orrian ere horren berri emango da.

Hautagaien merituak barematzea, zerrendako baremazio-irizpideak ezarritako atalaren arabera izango da.

Zerrendetan dauden hautagaiak ez badira nahikoak une-unean izan daitezkeen ordezkopremiak asetzeko, zerrendak irekita uzteko aukera egongo da, beste hautagai batzuk sar daitezten.

Zerrenda irekiera horiek honela antolatuko dira: eskaerak eta dokumentazioa behar bezala aurkeztu deneko ordena.

Zerrendak urtero barematuko dira, hautagai guztiak aintzat hartuz. **MOMENTU HONETAN ZERRENDAK ZABALIK DAUDE SINE DIE.....**

11.1.- ZERRENDEN IREKIERAN BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK

- Titulazio akademikoa: Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako Goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak.
- Euskara titulazioa: HLEA, HE2, EGA , C1
- Medikuaren ziurtagiria: medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuko da.
- Ordezkapenetarako izangaien zinpeko aitortpena.

11.2.- ZERRENDAKO BAREMAZIO IRIZPIDEAK

Lan esperientzia:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden hezkuntza bereziko laneko kolektiboetan zerbitzuak eman izana: puntu 1 hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe.

Itunpeko ikastetxe edo pribatu batzuetan zerbitzuak eman izana: 0'5 puntu hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe. Atal honetan hezkuntza bereziaren eremuan emandako zerbitzuak baino ez dira kontuan hartuko, langileak hezitzaile kategoria honi dagokion lan-legepeko kontratu berdinarekin eta dagozkien funtzio analogoak beteez ere.

Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak ondorengo agiriak aurkeztuz egiaztatuko dira: ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia jasota, kontratuaren fotokopia konpultsatua eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ziurtagiria (enpresaren) izena eta alta-aldiak jasoko dituen.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

Lanaldi partzialeko erregimenean emandako zerbitzuek lanaldi osoko erregimenean emandako zerbitzuen puntuazio bera izango dute.

Puntuazioko berdinketak desegiteko irizpideak:

Izangaien guztizko puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, ondorengo hauei jaramon eginez ebatziko dira, hurrenez-hurren: zerbitzaldi luzeagoa ikastetxe publikoetan (egunetan adierazita), zerbitzaldi luzeagoa ikastetxe pribatuetan (egunetan adierazita).

Berdinketak irauten badu, abizenen eta izenen alfabeto hurrenkera erabiliko da, eta urteroko zozketa baten bidez erabakiko da zein letratik hasi.

Behin-behineko zerrendak Hezkuntzako Web orrian eta Lurralde Ordezkaritzetako tauletan jarriko dira. Honekin batera, erreklamatzeko epeak argitaratuko dira. Epe hauek pasa ondoren behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Behin betiko zerrenda hauei ere gora joateko helegitea sartu ahal izango zaie, Pertsonal eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean. Hiru hilabeteetan ez bada erantzuna jasotzen edo ezezkoa bada, bi hilabete epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sartzeko EAEko Auzitegi Nagusian.

11.3.- FUNTZIONAMENDUA ETA SALBUESPENAK

11.3.1.- ORDEZKAPENETARAKO ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA

Hezkuntza Sailak ordezkapen bat bete behar duenean, ordezkapen horri dagokion zerrendara joko du, eta zerrenda horretan libre aurkitzen den lehenengoari eskainiko dio. Ordezkapena bukatzen denean Lurralde Ordezkaritzan jakinarazi beharko da, ahalik eta lasterren (faxez, telefonoz, e-postaz, etab.).

11.3.2.- FUNTZIONAMENDU OROKORRAREKIKO SALBUESPENAK

- Ordezkapen bat amaitzen denetik bost ikastegunetara ordezkapen bera berriro suertatzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordezkapen hori bete duen izangaiak lehentasuna izango du, egiteko moduan badago, betiere.

- Jardunaldi murrizketako ordezkapenen kasuan, aukera hori eskatu eta libre dagoen lehenengoari eskainiko zaio.

- Hala ere, jardunaldi murrizketarako aukera egin ez duen izangaiak eta lanaldi osoko ordezkapena betetzen ari denean, titularra itzultzen bada eta jardunaldi murrizketa eskatzen badu, ordezko honek lanaldi murrizketa hori ordezkatzen jarraitzeko aukera izango du. Aitzitik, edozein arrazoigatik ordezkatzen ari den jardunaldi murriztuko lanaldi bat osora pasatzen denean, dagoen izangaiari eskeinitako ordezkapen hori egitea.

11.3.3.- ORDEZKAPENEI UKO EGITEKO ARRAZOIAK ZERRENDETATIK ERORI GABE

- Gizarte Segurantzaren autonomo gisa altan egotea. Autonomoen ziurtagiria eta lan-bizitza aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Haurdunaldiko seigarren hilabetetik erditu arte. Egitate hori egiaztatzeko txostena aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Administrazio batean izendapena izatea. Gizarte-segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiriaren bidez edota izendapena beraren bidez frogatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- 2. maila arteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak zaintzeko, hautagaiak eskubidea izango du deitua ez izateko gutxienez 15 egunetan eta gehienez 2 urtetan. Deiaren etete hori eskatzeko frogatu behar da senidea, istripu, gaixotasun edo aniztasun funtzional arrazoiengatik, bere kasa moldatu ezin dela. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.

Bi urte horiek igaro ondoren, berriro deitzeko eskatu beharko da. Ez badu berriro deitzeko eskatzen, zerrenda guztietatik kanpo geratuko da.

Gutxienez 15 eguneko epea igarotakoan, eta bi urte igaro arte, edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrendetatik berriz deitzea, baina inola ere ezin izango dute berriro eskatu arrazoi beragatik deitua ez izatea; hau da, behin bakarrik eskatu ahal izango du pertsona eta kausa beragatik.

Berriro deitzeko eskatzen duenean, behin bi urteko igarota edo lehenago, egiaztatu beharko du eskaturiko etenaldi hori eragin zuen istripua, gaixotasuna edo aniztasun funtzionala egon dela egiaztatu beharko du. Egiaztatzen ez badu, zerrenda guztietatik kanpo geratuko dira.

Bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko du ez dela beste enpresa batean aritu.

- Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo semearen edo alabaren gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik uko egitea era mugagabea justifikatua egondo da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.

Gaixotasunaren larritasuna mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da gaixotasunaren data.

Gaixorik dagoen pertsona ezkontidea, izatezko bikotekidea edo semea edo alaba bada, horren amaiera jakinarazi beharko da, hau da, lan-eskaintzari uko egiteko arrazoa ospitaleko edo medikuaren altarekin amaituko da.

Egiaztatzen ez badu, zerrenda guztietatik kanpo geratuko da.

Bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko du ez dela beste enpresa batean aritu.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

Edozein unetan eskatu ahal izango duzerrendetatik berriz deitzea, baina inola ere ezin izango du berriro eskatu arrazoi beragatik deitua ez izatea; hau da, behin bakarrik eskatu ahal izango da, kausa eta pertsonako.

- 12 urtetik beherako seme-alaben kontsulta medikoetara joatea. Familia-liburuaren eta bertaratze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Genero indarkeriaren biktima izateagatik. Baldintza hori egiaztatu egin beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritutzen.
- Gaixotasun edo lanekoa ez den istripugatik aldi baterako ezintasun egoeran (bajan) egotea.
- Lan istripu edo lan gaixotasunagatik.
- Amatasun lizentziagatik: haurdunaldiko 7. hilabetearen eta umearen 18. astearen barruan. Baita ere haurdunaldia arrisku egoeran baldin badago.
- Aitatasun lizentziagatik: umea(k) jaio eta hurrengo 18 asteren barruan.
- Aldi baterako etena seme-alabak zaintzagatik, haurrak 3 urte bete arte luzatu ahal izango da. Behin bakarrik eskatu ahal izango da, gurasotasun bajaren aldia bukatzen denean. Kasu hauetan, etena eskatu izan ez balu bezala izango da deitua, eta eskaintzen zaion ordezkapen-aldia zerbitzu-alditzat hartuko da (birbaremaziorako soilik). Ikasturte hasierako esleipenean ere lanpostua aukeratu ahal izango du, baina birbaremazioaren ondorioetarako bakarrik.
- Ahaideen gaitz larri edo heriotzagatik. Uko egite honek honako mugak ditu: odolkidetasunezko edo berekidetasunezko 2. mailara arteko ahaideen gaitz larri edo heriotzagatik 2 egun; ezkontidea, bizilaguna eta seme-alabaren gaixotasunaren kasuan, 5 egun. Bi eguneko epe hori hiru egunetaraino luzatuko da arrazoi haueengatik: langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen bada. Betiere, larritasuna medikuaren ziurtagiriaren bidez baietsi beharko da.
- Adopzioa, lehen 18 asteren barruan.
- Norberaren ezkontzagatik, ospakizuna izan baino 20 egun natural aurretik edo ondoren suertatuko balitz. Berdin bizikidetzaren egonkoraren kasuetan.
- Askatasuna galtzeagatik, zigor-epairik ez den bitartean.
- Hezkuntza Sailak, HAEE/IVAPek edo MECek edo beste autonomia erkidego batek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
- Hezkuntza sistemarekin loturiko bekaren bat edukitzea.
- Ikasketetan edo praktiketean aritzea. Matrikularen bidez egiaztatu beharko da eta uko egitea ikasturte osora luzatu daiteke. Praktikak badira, praktika-aldiaren iraupenaren agiria aurkeztu beharko da.

- Irakaskuntzako beste esparruetan edo beste edozein lan-kontratu izatea. Berriro deitua izateko norberaren adostasuna agertu behar da dagokion lurralde ordezkartzan.
- Lanpostuaren zereginak betetzearekin bateraezina den ezgaitasun fisikoren bat izateagatik.
- Lanaldi partzialetan lanpostua bizilekutik 50 km baino urrunago baldin badago. Kasu hauetan, ikasturtean zehar berriro deitu ahal izango zaio lanaldi partzialeko behar berriak eskaintzeko.
- Borondatez onartzen ahalko dira Zentro Terapeutikoetan egiteko ordezkapenen eskaintzak.
- Errelebu-kontratuak ere borondatez onartzen ahalko dira.
- Lan-istripua edo gaixotasun profesionala, amatasuna, aitatasuna edo arriskuko haurdunaldiaren kasuetan, ukorik egin ez balute bezala dei egingo zaie, eta ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzu gisa kontatuko zaie birbaremazioari begira, baina ez antzintasunerako, ezta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere. Kasu hauetan ere, ikasturte hasierako esleipen prozesuan parte hartu ahal izango da.

Eskaintza bati arrazoirik gabe uko egiten zaionean, Lurralde Ordezkaritzak eskaintzaren, hari egindako ukoaren eta zerrendatik kanpo uztearen berrespena bidaliko dizkio interesdunari. Halaber, jakinaraziko zaio 10 eguneko epean zerrendatik kanpo uztearen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango duela.

11.3.4.-ZERRENDATIK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK

- Aurreko puntuetan adierazitako arrazoiez bestelakoengandik egindako ukoa.
- **Justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi oso bati uko egitea**, hiru lurraldetan kategoria horretako zerrenda guztietan baja emango zaio, bai lanaldi osoetan, baita partzialetan ere; eta **justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi partzial bati uko egiteak** hiru lurraldetan kategoria horretako zerrendetatik kanporatzea ekarriko du, hau da lanaldi partzialetan soilik.
- Deian proposatutako ordezkapena onartzen duen izangaiak **lanera joan beharreko lehenengo egunean huts egiten badu**, onartutako lanpostuaren kategoriako zerrenda guztietatik kanporatua izango da, bai hiru lurraldeetatik baita lanaldi oso eta partzialetatik ere.
- **Indarrean kontratua duen izangaiak kontratu horri uko** egiten badio, indarrean dagoen kontratu horren kategoriako zerrenda guztietatik kanporatua izango da, hiru lurraldeetan, bai lanaldi osoetan baita partzialetan ere. Egoera hau emango da jardunaldi osoko edo partzialeko kontratu bati uko egitean.
- Izangaiak bere ohiko zeregina betetzeko ageriko gaitasun eza.
- **Diziplina-espedientearen ondorioz**: hutsegite larri edo oso larriren batengatik.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

11.3.5.- ZERRENDEN KUDEAKETA. DEIAK

- Ordezkapen bat bete behar denean, ordezko gaiak Hezkuntza Sailari telefono bakar bat eman badio, Ordezkaritzak birritan deituko du jarraian telefono horretara. Bi telefono eman badira, telefono bakoitzera dei bat egingo du jarraian. Ezin izango da bi telefono baino gehiago eman.

- Ez badu telefonoa erantzuten, pertsona horri "ez aurkitua" egoeran jarriko zaio eta Ordezkaritzak zerrendetan dauden hurrengo ordezko gaiei deitzen jarraituko du.

- Deia jaso duenak deia bueltatzen badu:

- Deia bueltatzerakoan, eskaini ahal zaion behar bat baldin badago, eskainiko zaio eta "okupatuta" egoerara pasatuko da.
- Deia bueltatzerakoan, eskaintzeko beharrik ez badago, "prest" egoerara pasatuko da.

- Deiak bueltatzeko prozesua azkartzeko, deia jaso dutenek dagokion ordezkaritzarekin kontaktuan jarri ahal izango dira posta elektronikoaren bitartez, helbide hauetan:

- Araba: arabaei@euskadi.eus
- Bizkaia: bizkaiaei@euskadi.eus
- Gipuzkoa: eigipuzkoa@euskadi.eus

Posta identifikatu ahal izateko:

- Gaia: "DEIA" hitza eta deia jaso den data eta ordua jarri behar dira.
- Izen/abizenak, NAN, telefono zenbakia eta kategoria zehaztu behar dira.

Urtero, apirila edo maiatza erdialdera, ordezkoen zerbitzuen birbaremazioa egiten eta gaurkotzen da.

Prozesua ohiko hedabideetan iragarriko da eta epe bat ezarriko da dokumentuak jasotzeko edo ordezko bakoitzaren birbaremazioari buruzko informazioa eskuratzeko eta erreklamazioak aurkezteko. Epe horren barruan egindako aukeraketan aldaketak sartu ahal izango dira.

11.3.6 .- ZERRENDETATIK KANPORATZEAREN ONDORIOAK

Zerrendetatik kanporatuak izan diren pertsonen, zerbitzuak emateko deituak izanda eskaintzari uko egin dietelako, uko egiteko arrazoiak alegatu eta egiaztatu ez dituztelako, Hitzarmen Kolektiboan ezarritako epe eta baldintzetan, edo esleitutako lanpostuaz ez direlako jabetu, zerbitzuak emateari uzten dietelako edo kontratuari borondatez uko egiten dietelako, ezin izango dute parte hartu ikasturte horretako zerrenda-irekitzeetan.

11.3.7.- ZERRENDAKO HURRENKERA ETA POSIZIOAREN XEHETASUNAK

Irakasle.eus atarian zerrendako hurrenkera eta posizioaren inguruko xehetasunak jakin daitezke. Hala nola, norberaren aurretik ordezkapen bat hartzeko zain dagoen hautagai kopurua. Informazio hau *ordezkapen izangaien birbaremazioa* atalean ageri da.

Informazioa horrelako taula batean zehazten da:

| AUKERATUTAKO ZERRENDAKO POSIZIOAREN XEHETASUNAK | | | | | | | | | | | | | | |
|---|--|------------|-----------------------------------|----------|---|----|---|---|--------------|---|---|---------|--|--|
| Maila | Maila | Irakasgala | Irakasgala | Delaldia | | | | | | | | | | |
| 79 | HEZKUNTZA BEREZIKO LAN-LEGEPEKO LANGILE HEZITZAILE | S113 | HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA | F | | | | | | | | | | |
| Eguneratze data eta ordua: 18/11/2020 07:14:57 | | | | | | | | | | | | | | |
| GIPUZKOA | | | | | | | | | | | | | | |
| Orden zenbakia: 179 | | | | | | | | | | | | | | |
| Lanaldi-murrizketa | | | Bai | | | Ez | | | R (Bakarrik) | | | Guztira | | |
| Irakasteko Hizkuntza Eskakizuna | 0 | 1 | 2 | 0 | 1 | 2 | 0 | 1 | 2 | 0 | 1 | 2 | | |
| Aurreko hautagai kop. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | |
| <p>Oharra: Azalduko informazioa informazio hutsa besterik ez da. Hautagaien zerrendan izaten den tokiari buruz emandako informazioa ez da inoiz ere, hautagaien zerrendak kudeatzean izan daitezkeen akatsengatik, erreklamazioak egiteko bitarteko bat. Emandako zenbakiek zu baino lehenago ordezkapenak egiteko libre zeuden hautagaien kopurua adierazten dute, informazioa argitara ematen den datan. .</p> <p>* Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenen bidez (Hezkuntza Sailaren web orrian kontsultatu ahal dira) aldatu da zerrenda hau. Zuzentzat jo behar da zu baino lehenago ordezkapenak egiteko libre zeuden hautagaien kopuruari buruz emandako informazioa, golan azalduko informazioan ez dauden aipatutako aldatetarik kenduta.</p> | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | Itzuli | | |

Irakurketa argibideak:

Orden zenbakia: zerrenda horretan hautagaiak okupatzen duen tokia.

Lanaldi-murrizketa Bai: jardun osoan eta murriztuan aurretik duen hautagai-kopurua azaltzen da.

Lanaldi-murrizketa Ez: jardun osoan aurretik dagoen hautagai-kopurua.

Lanaldi-murrizketa R (bakarrik): jardun murriztuan aurretik dagoen hautagai-kopurua.

Lanaldi-murrizketa, guztira: orotara aurretik dagoen hautagai-kopurua.

Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 0: PL0

Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 1: PL1

Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 2: PL2*

*Irakasteko 2. hizkuntz eskakizuna dutenek ere PL0 eta PL1eko ordezkapenak egin ditzakete.

11.4.- BIRBAREMAZIOAK

Erreklamazioak egiteaz aparte ondorengo ataletan aldaketak egiteko aukera zabalduko da:

- Datu pertsonalak eta helbidea.

- Lurralde aukeraketa.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

- Lanaldi motak:

- S: lanaldi osoa eta lanaldi murriztua.
- N: lanaldi osoa bakarrik.
- R: lanaldi murriztua bakarrik.

- Eman beharreko hizkuntz eskakizuna (HE): Une honetan egiaztatuta duen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren datu-basean erregistratuta dagoen hizkuntz eskakizuna baino goragoko bat adierazten badu, aurkeztu beharko du lurralde ordezkarietzan hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko agiria.

- Zerrendako egoera aldatu: datorren ikasturteko dei guztiei uko egiteko, lanerako prest jartzeko aukera eta aldi baterako baja justifikatuan jartzeko aukera.

- Zeinu hizkuntzaren ezagutza.

- Baremorako alegatutako merezimenduak.

- Informatika-ezagupenak izanez gero, zerrendetan horrela jasotzeko.

- EGA, HE2, HE1 edo euren baliokideren bat egiaztatzea.

Eskabideari edo erreklamazioari baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak eta baremorako merezimenduen ziurtagiriak gehituko zaizkio.

Eskariak eta erreklamazioak hezkuntzako lurralde ordezkarietzara bertaratuta egin daitezke edo online (irakaslegunearen bitartez).

Urtero, martxoan zabaltzen da birbaremazio epea.

11.5.- BAREMAZIO IRIZPIDEAK

Zerbitzu egunak zenbatzeko, apirila edo maiatzaren erdialdera zerrendak ixten dira eta egun horretarainoko zerbitzu-egunak kontuan hartzen dira. Gogoratu sare publikoan emandako zerbitzuagatik hilabeteko (30 egun) puntu bat dela eta pribatuan, berriz, hilabeteko, 0,5. Eskabide edo erreklamazioak Hezkuntzako Lurralde Ordezkarietzako batera baino ez dira bidaliko, beti ere ezarritako epe barruan.

Hilabetera, 30 egunetara, iristen ez diren zerbitzuek ez dute puntuaziorik gehituko, baina zerrendan puntuazio berdinarekin diren izangaien ordena erabakitzeko erabiliko dira, eta beste denboraldi batean egingo diren zerbitzuei gehitzeko gordeko dira.

12.- ESLEIPENAK

12.1.- FINKOAK ETA LEP ARTEKO KONTRATUAK (BAKANTEAK)

Hezkuntza Laguntzako Espezialisten langile finko eta LEP arteko kontratua (bakantea) daukateneke ekainaren azken astean egiten dituzte esleipenak, bakoitzari dagokion berritzegunean. Hurrengo ikasturtean egongo diren jardun osoko kontratu guztiak eskaintzen dira bertan.

Esleipen hau langileen adostasunez egingo da. Adostasunik ez balego lanpostu egokitzapena dutenei lanpostua egokituko zaie lehenik. Jarraian, finkoen esleipena burutuko da.

Lehentasan hauen arabera jokatuko da:

- 1) Zentroan duen egonkortasuna (antzinatasuna)
- 2) Berdinketa izanez gero, edo lehenengo lehentasan-irizpidea ezin bada ezarri, azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzua eman duten langileek lehentasuna izango dute.
- 3) Esleitu zaien ikastetxean beharrik ez dagoela-eta, berritzegunearen esparruan erreferentziako zentrorik ez duten langileak.
- 4) Berritzegunearen eremuaren barruan borondatez zentroz aldatu nahi duten langileak.
- 5) Berritzegunearen eremuari dagokion barrutian sartutako langile finkoak.

Zenbait pertsona baldintza bertsuetan egonez gero, honako hauek izango dira berdinketa hausteko irizpideak, ordena honetan:

- 1) Berritzeguneko barruti horretan metatutako antzinatasuna.
- 2) Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan metatutako antzinatasuna.
- 3) Sarbide-nota.
- 4) Izen-abizenen alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako zozketa bidez urtero ezartzen den letraren hurrenkeran, zeina aplikagarria baiten Hezkuntza Saileko langile-hautagaien deialdietan eta hautaketa-prozesuetan.

Ondoren bakantedunen eta mugagabe ez-finkoen esleipena egingen da. Horretarako finkoen irizpide berak jarraituko dira.

12.2.- ORDEZKOAK

Heziketa Berezian ordezkapenak egiten dituzten langile guztiek esleipen telematikoak dituzte. Abuztuaren hirugarren astean egingo dira. Hezkuntza Sailak parte hartzeko puntuaketa minimoa zehaztuko du, eta puntuazio hori edo handiagoa dutenentzat parte hartzea DERRIGORREZKOA izango da. Ezarritako puntuaketa baino baxuagoa dutenek borondatez parte hartu ahal izango dute. Esleipen prozesua martxan jartzen denetik bi egunetako epea egongo da eskaerak egiteko.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

Esleipenak baino lehenago:

Uztailean, esleipenak baino lehenagoko baremazioan parte hartzeko aukera egongo da. Baremazio honetan egindako aldaketek esleipenei bakarrik egiten diete erreferentzia; telefonoz eskaintzen diren ordezkapenetarako, aurretik egindako aukerak mantenduko dira indarrean. Jardun, lurralde historiko eta destinoa (bakarrik jardun partzialetarako eta berritzeguneetan zehaztuta) aldatzeko aukera egongo da.

Ikasturtearen hasierako esleipen-prozesuan parte hartu ahal izateko lanaldi partzialeko ordezkapen-kontratuari borondatez uko egiteko aukera egongo da uztailaren 15etik aurrera. Langileak, lanpostu horretan bi urtetako antzintasuna izan beharko du uko egin ahal izateko.

Uztailetik abuztu erdialdera lan-egoerak aldatzeko tarte zabalduko da. Lanerako prest egoera, okupatuta edo uko egite justifikatuak jakinaraziko dira.

12.2.1 PROZEDURA

1. Prozeduran parte hartzeko ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan lanerako prest egotea beharrezkoa da.

2. Halaber, lan-istripuagatik edo lan gaixotasunagatik, edo haurra izan dutelako, aldi baterako ezintasuneko egoeran, amatasun-aitatasun egoeran, haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian, edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran edo jardunaldi-etete iragankorrean dauden, eta adierazitako puntuazioa edo handiagoa duten ordezkogaiak —betiere egoera horiek behar bezala justifikatuz gero— postua aukeratuko dute esleipen prozesuan, eta baja egoera bukatu arteko denbora zerbitzalditzat zenbatuko zaie, zerrendak birbarematzeari dagokionez bakarrik bada ere. Zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango "antzintasunean" izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Egoera horietako batean dauden hautagaiak ikasturtean zehar hasi ahalko dira lanean lanpostu horretan, egoera hori sortu duen gertakaria amaitzen denean.

3. Postua aukeratzeko pertsona bakoitzak adierazitako hizkuntza-eskakizunarekin, lanaldiarekin eta lurralde historikorekin bat etorri beharko da.

Kontratua gauzatzen den datan, hautagaiak Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren 13.5 artikulua adierazitako betekizunarekin lotutako ziurtagiri negatiboa izatea egiaztatu behar dute, edo Administrazioari baimena eman behar diote Sexu Delinkuenteen Erregistro Zentralean kontsulta dezan.

4. Borondatezko parte-hartzea eta derrigorrezkoa:

Puntuazio minimoa edo handiagoa duten langileek derrigorrez parte hartu behar dute. Gutxieneko puntuaziora ailegatzen ez diren langileek borondatez parte har dezakete.

Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

5. Borondatezko eskaerak eta derrigorrezkoak:

Eskabidea formalizatuko da prozedura abiarazteko ebazpenak adierazten duen epean <http://www.irakasle.eus> helbidean. Identifikatzeko, erabiltzailea eta pasahitza erabiliko dira, eta , hori izan ezean, NAN zenbakiaren bidez alta eman beharko da. Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak bere identitate-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

Nahitaez parte hartu behar duten pertsonen eskabidean, dagokion zerrendan pertsona bakoitzak adierazitako hizkuntza-eskakizunetara, lanaldira eta lurralde historikora egokitzen diren lanpostu guztiak jaso beharko dira. Eskabiderik aurkeztzen ez badute, sistema informatikoak derrigorrezko eskaera bat egingo du parte-hartzaileak lehenik zehaztutako sarbide-baldintzak (hizkuntza-eskakizunetara, lanaldira eta lurralde historikora) kontuan hartuz. Nahitaez parte hartu behar duten langileek borondatezko eskabidea egiten badute, sarbide-baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu gabe, sistemak derrigorrez sortzen dituen eskaerak borondatezko azken eskaeraren ondoren ordenatuko ditu.

Borondatez esleipenetan parte hartzen dutenek sarbide-baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu gabe egin ahalko dute eskabidea, eta eskaera horiek bakarrik hartuko dira aintzat, eta ez zaie inolaz ere derrigorrean lanpostu bat esleituko .

6. Borondatezko eskabideak egiteko modua:

Pertsona bakoitzak eskabide bakarra formalizatuko du. Eskabideak datuak sartzeko 500 lerro ditu, lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskabide-zenbakiak egindako eskaera ezberdinen arteko hautaketa-lehentasuna ezartzen du.

Eskabidea lanpostu zehatzen gainean egin daiteke, "Lanp.hur.-zk." zutabeari dagokion laukitxoan, prozedura abiarazteko ebazpenean lanpostu zehatz horri esleitutako zenbakia adieraziko da.

Era berean, eskabidea eskaera generikoen bidez ere egin daiteke, lanpostu zehatz bat adierazten ez duena, baizik eta ondorengo kontzeptu guztiak edo batzuk aukeratzen egiten dena: kategoria, lurralde historikoa, lanaldia, hizkuntza eskakizuna edota destinoa.

Eskabide berean, lanpostu zehatzak eta lanpostu generikoak nahasi daitezke.

7. Eskabidea aldatzea eta ixtea:

Eskabideari alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan egin daitezke aldaketak, aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean. Eskabidea pertsonak berak hala erabakita itxiko da, edo, bestela, automatikoki, epea amaitutakoan. Horrela, ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan. Eskabidea itxi ondoren, ezingo da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lor dezake erregistratutako aukera eta eskaerekin.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

8. Eskabidea eta eskaerak balioestea:

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, sistemak sartutako datuak egiaztatuko ditu eta, hala badagokio, ez ditu onartuko lanpostuak lortzeko baldintzaren bat betetzen ez duen parte-hartzailearen eskaerak. Era berean, ez dira onartuko elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, ezta deialdikoak ez diren lanpostuak edo parte-hartzaileak eskatu ezin dituen zentroak edo lanpostuak begiesten dituzten eskaerak ere. Behin-behineko ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, parte hartzeko benetako baldintzak jasotzen dituen inprimaki bat eskura daiteke, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zein baztertu diren jasoko duena.

9. Lanpostuen antolaketa automatikoa eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan:

Eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan jasotako lanpostuak prozedura abiarazteko ebazpenean ezartzen den ordenaren arabera zerrendatuko dira:

- Kategoriaren arabera, ordena honetan: fisioterapeuta, okupaziozko terapeuta, hezkuntza laguntzako espezialistak, transkribatzailea/ material egokitzailea eta zeinu-hizkuntzaren interpretea
- Lurralde historikoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hurrenez hurren.
- Lanaldi osoa, lanaldi partziala.
- Hizkuntza-eskakizuna: lehenik hizkuntza-eskakizuna dutenak eta ondoren hizkuntza-eskakizunik gabekoak.
- Destinoen arabera, Lanpostuen Zerrendan hezkuntza-langileen lanpostuak zerrendatzen diren destino-ordenaren arabera.

10. Lanpostuak esleitzeko irizpideak:

Lanpostuen esleipena hautagai-zerrenden hurrenkeraren arabera egingo da. Pertsona bakoitzari, bere eskabidea osatzen duten lanpostuetatik, zerrendako lehenengo librea eta balioduna esleitu zaio.

HLEA hizkuntza-eskakizuna dutenek HLEA hizkuntza-eskakizuna duten eta 1. hizkuntza-eskakizuna lanpostuetarako sarrera izango dute.

1. hizkuntza-eskakizuna soilik egiaztatu duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskuratuko dituzte.

Hizkuntza-eskakizun egiaztatutik ez duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak eskuratuko dituzte.

11. Lanpostuen behin-behineko eta behin betiko esleipenak:

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez —Irakaslegunean eta Hezkuntza Saileko webgunean argitaratuko da— behin behinean esleituko dira lanpostuak. Erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunean eskuragarri dagoen aplikazio elektronikoaren bidez, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendariak lanpostuen behin betiko ebazpena emango du eta modu berean argitaratuko da.

12. Esleipenaren izaera utziezina eta kontratua formalizatzea:

Esleitutako lanpostuak betetzeari ezin zaio uko egin, irakasle ordezkogaien kasuan izan ezik, zerrenda kudeatzeko araudian jasota dagoen uko egiteko kasuren bat gertatzen bada, baldin eta kausa hori aurreikusi ezin diren egoeren ondoriozkoa bada, eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte egin bada, eta alegatzen duenak borondatez egindako ekintza baten ondorioz ez bada.

Lanpostu bat esleitu zaion langilea 2. puntuan azaldutako egoeran badago, dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio, baldin eta egoerak ikasturte berrian jarraituko badu. Langile horien kontratuak egoera berezi horiek amaitzen direnean formalizatuko dira.

Esleipenaren ondoren, lan-kontratua idatziz formalizatu beharko da.

13.- HAURDUNALDIA, GURASOTASUNA ETA EDOSKITZEA

13.1.- LANEKO ARRISKUAK HAURDUNALDIAN

Haurdunaldi kasuetan laneko arriskua dagoela ikusiz gero, ondorengo pausuak eman behar dira "laneko arriskuagatik baja" mutuak bideratu dezan. Haurdunaldiaren 18. astean tramitea hastea komenigarria da, batzuetan prozesua luzatzen baita, baina arinegi eskatzen bada ezetza jasotzeko arriskua dago. Mutuatik baja hartu ahal izateko ezinbestekoa da Gizarte Segurantzatik baja egoeran ez egotea, bestela ezin baita tramitatu.

Langile bakoitzari dagokion lurralde ordezkaritzarekin kontaktuan jarri eta kasua azaldu behar da, hauek prebentzio zerbitzuarekin kontaktuan jarriko dute langilea, eta tramitatzen hasiko dira. Prebentzio-zerbitzuak lanpostuaren balorazioa egingo du, eta txostena bidali analisi serologiko bat egiteko. Behin analisia eginda dagoela, datu guztiekin mutua bidaliko ditu dokumentu guztiak. Mutuak paperak jasotzen dituenean bertako medikuekin hitzordua emango du, behin haiekin egon eta gero bajaren hasiera data zehaztuko dute.

13.2.- AMA BIOLOGIKOAREN JAIOTZAGATIKO BAIMENA ETA AMA BIOLOGIKOA EZ DEN BESTE GURASOAREN SEME-ALABAREN JAIOTZA BAIMENA

Hitzarmen honen eraginpeko langileek haurdunaldiko eta erditzeko lizentzia har dezakete. Lizentziak hemezortzi asteko iraupena izango du ama biologikoaren kasuan (lehenengo 16ak Gizarte Segurantzak ordainduko ditu eta beste biak Eusko Jaularitzak), eta erditze anitza izanez gero, bi aste luzatu daiteke seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik hasita.

Erditu ez duen gurasoaren lizentzia ere 18 astekoa izango da (16 aste Gizarte Segurantzak eta 2 Eusko Jaularitzak). Eusko Jaularitzak emandako hobekuntza zati hauek etenik gabe gozatu beharko dira eta oinarrizko arauak emandako borondatezko zatia amaitzen denean hartu beharko da.

| | Ama biologikoa | Ama biologikoa, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa |
|--|----------------|--|
| Oinarrizko araudiko nahitaezko zatia | 6 aste | 6 aste |
| Oinarrizko araudiko borondatezko zatia | 10 aste | 10 aste |
| Eusko Jaularitzak hobetutako zatia | 2 aste | 2 aste |

Borondatezko zatia:

Etenik gabe baimen aldiko aste guztiak agortu arte. Nahitaezkoa izango da kasu hauetan:

- Bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
- Adopzio, zaintza edo harreretan, haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.

Baimena zatika hartzeko bi gurasoak lanean egon behar dira. Astez aste hartuko dira baimen-zatiak, haurrak 12 hilabete bete arte.

- Ama biologikoa denean: nahi duenean, nahitaezkoak diren 6 asteak eta gero.
- Beste gurasoa denean:

Ama biologikoaren nahitaezko atsedendia amaitu eta gero edo ama biologikoaren edo beste adoptatzaile edo zaintzailearen baimena amaitu eta gero (Hobekuntzan luzatutako asteak barne).

Jaiotza-baimenaren ondoren ama biologikoak edo beste adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoak eskatzen badu, haurraren edoskitze denbora lanaldi osoetan metatzea, denbora hori igarotakoan hasiko da gainerako baimen-asteen kontaketa.

Baimena zatika hartzen denean, aste osoetan banatuta hartuko da, eta baimen zati bakoitza hartzeko aurreabisu errebokeazina egin beharko da, gutxienez 15 egun lehenago.

Hobekuntza zatia etenik gabe gozatu beharko da, eta berehala hartu beharko da borondatezko zatia, duen iraupena duela, amaitzen denean.

Hobekuntza hori etenik gabe gozatu beharretik salbuetsita geratuko dira, izendapenaren edo kontratuaren iraupena dela eta, etenik gabe hartu ezin dutenak; kasu horretan, hurrengo izendapenean edo kontratuan berehala jarraituko dute baimenarekin, harik eta agortu arte, betiere ere haurrak 12 hilabete bete aurretik.

- Aurrez abisatutako baimena hartu aurretik lan istripuren bat gertatuz gero, baimen hori gero hartzeko utzia ahalko da, betiere haurrak 12 hilabete bete aurretik.
- Ama biologikoa hiltzen bada, beste gurasoak baliatu ahalko ditu zegozkion edo geratzen zitzaion baimen zatia.

ORDEZKOEN KASUAN

Gurasotasuneko nahitaezko zatia hartu ondoren, ordezkoen kasuan kontratu berri bat izendatzen zaienean, gurasotasun baimenarekin jarraitu ahalko dute. Horretarako, esleipen bat jasotzen dutenean lanera ez direla joango eta gurasotasun-baimenarekin jarraituko dutela adierazi behar dute (kasu honetan ez da 15 egun lehenago abisatu behar edo aste osoko zatiak hartu behar), horrela baimen guztia agortu arte edo umeak 12 hilabete bete arte.

13.3.- EDOSKITZEA

- Norbanakoaren baimena da, guraso bakoitzaren eskubidea eta transferiezina. Baimenaldi osoa amaitutakoan hartu beharko da, nahi den modura:
 - Lantokitik ordu bete alde egitea, bi zatitan banatzeko aukerarekin.
 - Metatzeko aukera. Kasu honetan, laneguneko 6 ordu kontatzen dira (24 egun gutxi gora behera). Jardun erdiaren kasuan, 48 egun; eta herenaren kasuan, 72 egun metatzen dira (gutxi gora behera). Delegaritzan egiten dute kalkulu zehatza.
- Metaketa hautatuz gero, urte horretan zerbitzuak aldi baterako eteteko aukera eta eszedentzia eskatzeko aukera galduko lirateke.
- Langile kudeaketarako zuzendariak emandako eskabide-orria bete behar du.

13.4.- ADOPTIO, ADOPTIO AURREKO ZAINTZA EDO HARRERA ALDI BATERAKO ZEIN IRAUNKORGATIKO BAIMENA

Sei urte arteko adopzio eta ume-hartze kasuetan, bai adopzio aurreko baita iraunkorrak direnean ere, langileak ondoz ondoko hemezortzi asteko lizentzia hartu ahal izango du. Adopzioa gauzatu den egunetik lehenengo 6 asteak derrigorrezkoak dira bi gurasoentzako. Hurrengoak jarraian hartu ahal dira edo asteka txandakatuta (15 egun lehenago abisatu behar da) Jaurlearitzak ematen dituen asteak, Gizarte Segurantzak ematen dituen asteen jarraian hartu behar dira. Gainera, adopzioa edo ume-hartzea anizkuna bada, bi aste gehiago luza daiteke lizentzia seme-alaba bakoitzeko, bigarren seme-alabatik hasita. Aste horiek guztiak langileak nahi dituenean hasiko ditu, ume-hartzearen inguruko administrazio-erabakia edo erabaki judiziala ezagutzean edo adopzioa finkatzen duen ebazpen judizialaren berri izatean.

Baimena, era berean, hemezortzi astekoa izango da sei urtetik gorako haurrak adoptatzen edo hartzen diren kasuetan, haurrok ezgaituak edo elbarriak badira, edo, inguruabar eta esperientzia pertsonalak direla-eta edota atzeritik datozelako, gizartean eta familian txertatzeko arazo bereziak badituzte eta gizarte-zerbitzu eskudunek behar bezala egiaztatu badituzte arazo horiek.

Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira joan behar badute, artikuluko honen kasu bakoitzean ezartzen duen baimena adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da.

Oporraldia eta haurrak adoptatzeko eta hartzeko lizentzia-aldia metatu ahal izango dira, nahiz eta aldiari dagokion egutegiko urtea amaiturik egon.

14.- LAN ISTRIPUAK/ BAJA ARRUNTAK

Aldi baterako ezintasuneko (gaixotasun baja) kasuetan. Gizarte Segurantzak ordaintzen duen prestazioa administrazioak osatuko du lehenengo egunetik. Nominan bi atal azalduko dira: Gizarte Segurantzari dagokiona eta Departamentuak osatzen duen zatia. Kobratu ahal izateko azken 5 urteetan 180 eguneko kotizazioa eduki behar da. Gaixotasun profesionala edo lan-istripuaren kasuetan, ordea, ez da kotizatutako gutxieneko lanaldirik izan behar.

Hala ere, adi egon ordezkapen bat eskuratu eta lehenengo egunean gaixotuz gero, ez hartu baja egun bereko datarekin, Lurralde Ordezkaritzak ez baitu lan-kontratua aintzakotzat hartuko, eta ondorioz ez dio Gizarte Segurantzari gaixotasunaz informatuko. Beraz, langileak ez luke baja hori kobratuko eta izendapena bertan behera geratuko litzateke.

Lanean egon bitartean ordezkoak baja hartzen badu, eta bitarte horretan titularra bueltatzen bada, langileak alta hartu arte Gizarte Segurantzatik kobratuko du (titularra joan denetik ordezkoak alta izan arteko egun horiek), baina langabezia-sariaren zenbatekoaren arabera. Alta hartu arte kontratu gabeko egun horiek langabezia-prestaziotik deskonta ditzakete. Gizarte Segurantzako bulegora joan behar da bajaren ordainketa zuzena tramitatzeko.

Lan-istripu edo laneko gaixotasun kasuetan, 112 telefonora deitu larria izanez gero. Arina baldin bada, Mutuialiak dituen asistentzia zentroetara joan; taxia behar izanez gero, faktura eskatu eta mutualitateak berak ordainduko du. Informazio telefonoak:

Araba: 945008888

Bizkaia: 944252500

Gipuzkoa: 943505000

Terapeuta Okupazionala – GIDA

15.- LANGABEZIA

SEPEk ezartzen duen araudi orokorraren arabera, langabezi saria kobratzeko eskubidea izateko urtebeteko lanaldia osatu behar da (jarraian edo ez jarraian) azkeneko 6 urteetan. Prestazioa kobratzeko denboraldia lan egindako denboraren arabera definituko da.

Eskubidea gauzatzeko eskaera SEPEko bulegoetan egin behar da, kontratua amaitzen denetik 15 lan-eguneko epe barruan. Ez bada epe honen barruan egiten ez da eskubidea galtzen baina bai dirua.

Prestazioaren zenbatekoa Oinarri Arautzailearen (OA) arabera: %70a lehenengo 6 hilabeteetan, eta %60a hortik aurrera.

Oinarri Arautzailea kalkulatzeko lan egin den azken 6 hilabeteetako kotizazioen bataz bestekoa egiten da. Azken 6 hilabeteetan jardunaldi murriztuko lanaldietan aritu izanez gero, kotizazioak jardunaldi horren arabekoak izango dira.

Aldizkako ordezkapenak egiten diren kasuetan, langabezi saria, norberaren interesen arabera, edozein ordezkapen aldi egin ondotik eska daiteke.

Langabezi-saria jasozteko eskubideak ez ditu aintzat hartzen jardunaldiaren ezaugarriak (murriztuak edo osoak), lan egindako egun kopurua baizik.

PRESTAZIO PARTZIALA

Araudiaren arabera, ordezkoek prestazio partziala jasozteko eskubidea dute hurrengo kasuan: ordezkapen baten ondotik langabezia-saria eskatzen badute, eta prestazio hori kobratzeko eskubidea duten denboraldiaren barruan jardunaldi murriztuko ordezkapen bat hartzen badute, kobratzen ari den prestazioaren zati proportzionala jasotzen segi dezakete. Hori bai, prestazio partzial hori jasotzeak langabezia-sariaren egunak kontsumitzea dakar, eta gastatutako langabezia-sariaren egunak jardunaldi murriztuarena izan arren jardunaldi osoko bezala konputatuko dira.

16.- OHIKO GALDERAK

- Ikasleen kodeak/ez badu koderik?

Hezkuntza Premia Berezia duten ikasleek jasotzen duten laguntza kopurua kodeen bidez antolatzen da:

300.6a: Aldizkakoa (tarteko laguntza eta krisialdi momentuetan)

300.6b: Mugatua (astean 1 eta 6 ordu bitartekoa)

300.6c: Zabala (astean 7 eta 15 ordu bitartekoa)

300.6d: Orokortua (astean 16 eta 25 ordu bitartekoa)

300.6e: Jangela

300.6f: Garraioa

Koderik gabeko ikasleek ez dute hezitzailearen laguntza jasoko.

- Oporrak berreskuratzeko eskubideak.

Udako opor garaian (abuztuan) bajaran (gaixotasun, gurasotasun-baimena, haurdunaldia...) egonez gero, egoera hori amaitzerakoan opor-egun horiek hartu ahalko dira; kasu honetan 30 egun natural izango dira.

- Autonomia pertsonalerako programak

Autonomia pertsonaleko programa bakoitzaren xehetasunak berritzeguneetako hezkuntza premia bereziko aholkulariek eta ikastetxeko aholkulariek ezarriko dituzte.

Terapeuta Okupazionala – GIDA

17.LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Mahai parekidean aztertuko dira osasun arrazoiengatik arrisku egoeran dauden langileen kasuan abian jar daitezkeen neurriak eta prozedurak. Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ere parte hartuko du azterketa horretan, betiere, beharrezkoak diren berme juridiko guztiekin.

Lanpostuaren ebaluazio medikua bideratzeko Prebentzio Zerbitzutik bideratu behar da. Horretarako eskaera egin behar da honako helbide honetan

prebentziohezkuntza@euskadi.eus

Lan Osasunaren inguruko zalantzak sortzen bazaizkizu jarri gurekin harremanetan.

Saioa Karmele Roa: heziketabereziaaraba@lab.eus

18. URTEKO KRONOGRAMA

Heziketa Berezia URTEKO KRONOGRAMA

| | | IRAILA | URRIA | AZAROA | ABENDUA | <u>URTARRILA</u> | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA | UZTAILA | ABUZTUA |
|--|--|--------------------------------|--------------------------|--------|---------|------------------|---------|---|------------------------|-----------------------|----------------------------------|---------|-----------------------------|
| E S L E I P E N A K | Finkoak | | | | | | | | | | | | |
| | Ordezkoak <u>Bakantedun</u> <u>/interinitate</u> kontratuak | | | | | | | | | | | | 1.fasea telemati koak |
| | Ordezkoak | | | | | | | | | | | | 2.fasea telemati koak |
| LEKUALDATZEA | | | | | | | | | Eskaera | Eskaera <u>BBh</u> | Errekla mazioa/ <u>BBt</u> | | |
| <u>BIRBAREMAZIOA</u> | | | | | | | | Fitxa ikusgai /a legazioak aldaketak | <u>BBH</u> zerrenda | Errekla mazioak | ??? | ???? | ??? |
| URTE SABATIKOA (finkoentzat) | | | | | | Eskaera | Eskaera | Eskaera | Eskaera | Eskaera | | | |
| PREST-GARA | | Eskaera 2.epea | <u>BBH</u> <u>BBT</u> | | | | | | | Eskera 1.epea | <u>BBH</u> <u>BBT</u> | | |
| IRALE | | <u>BBH/</u> errekla zioa | <u>BBT</u> | | | Eskaera | Eskaera | Eskaera | Eskaera | | | | |
| <u>FORMAKUNTZA</u> FONDOA | | | | | | | | Eskaera | | | | | |

Terapeuta Okupazionala – GIDA

19. HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZETAKO TELEFONO ETA EMAILAK

Araba:

- Orokorra: 945 01 72 00
- Heziketa Berezia: 945 01 72 18 - 945 01 72 57

arabaei@euskadi.eus

- Nominak: 945 01 72 38 - 945 01 72 39 - 945 01 72 01

arabanomina@euskadi.eus

arabanom@euskadi.eus

Gipuzkoa:

- Orokorra: 943 02 28 50
- Heziketa Berezia: 943 02 28 74 - 943 02 29 12

eigipuzkoa@euskadi.eus

- Nominak: 943 02 28 52 - 943 02 52 75 - 943 02 28 77

nominagipuzkoa@euskadi.eus

Bizkaia:

- Orokorra: 944 03 10 69
- Heziketa Berezia: 944 03 10 65 - 944 03 11 63 - 944 03 11 37 - 944 03 11 44 - 944 03 11 08

bizkaiaei@euskadi.eus

- Nominak: 944 03 11 38

bizkaianomina@euskadi.eus

IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA ESKATZEKO EREDUA

Sindikatuetikiko Harremanetarako Departamentua

Eusko Jaurlaritz

Vitoria-Gasteiz

(Izen abizenak, NAN zenbakia eta telefono zenbakiarekin), Hezkuntza Departamentuko Heziketa Berezian (espezialista, fisioterapeuta edo.....) kategorian langilea (.....) Berritzeguneko (.....) ikastetxean.

ESKATZEN DUT

Administrazio Publikoetako Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunen Legera atxikitzea, (.....) ikastetxean Hezkuntza Departamenturako ordezkapen bat betetzeko (PT, LH edo...ko) lanpostuan.

Zure erantzuna ahalik eta arinen izatea nahiko nuke, datorren (data) lanean hastea posible izateko, lanpostu berrian eragozpen handirik sortu gabe, bateraezintasunagatiko eszedentzia eskatuta.

Besterik gabe, erantzunaren zain geratzen naiz.

Aurretiaz eskerrak emanez

(sinadura)